Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko ekainaren 12a, ostirala — 109 — Viernes, a 12 de junio de 2026

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ORDIZIAKO UDALA

*Larrialdietako ekintza gizatiarrei zuzendutako dirulaguntzak. BDNS (identif.): 909544.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/909544).

*Lehenengoa. Dirulaguntzaren xedea eta baldintzak.*

Dirulaguntza hau, larrialdi kasuetan daudenentzako ekintza gizatiarrak egiteko emango da, baldin eta hondamendi naturalek, gatazka armatuek edo antzeko gertaeren batek eragindako larrialdian edo hondamendian dauden pertsona edo erkidegoentzako badira.

*Bigarrena. Dirulaguntzaren xede diren kredituak eta aurrekontu-partida.*

Programa honen bidez deitutako laguntzen guztizko zenbatekoa 6.000 €-koa da 2026ko aurrekontu-ekitaldirako, eta 1 481. 01.230.20.0103 2026 aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko da.

*Hirugarrena. Dirulaguntza emateko prozedura.*

Laguntza emateko prozedura hau izango da:

Ondoz ondoko lehia-prozedura, modu iraunkorrean zabalik dagoena ekintza humanitarioko proiektuentzat, eta eskaerak aurkeztutako ordenari jarraikiz adjudikatuko dena. Aurkeztutako eskabideak ezesteko arrazoia izango da aurrekontu-kreditua agortzea, horren argitalpen ofiziala baino lehen aurkeztu badira; argitalpen horren ostean, eskabide berriak ez dira onartuko.

Ordiziako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren II. tituluko 1. atalean ezarritakoaren arabera jardungo da.

*Laugarrena. Onuradunek dirulaguntza lortzeko bete behar dituzten baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua.*

Hauek dira onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak:

— Gizarte Segurantzarekiko, Ogasunarekiko eta Ordiziako Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

— Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako kasuren batean ez egotea.

— Genero-indarkeriagatiko diskriminazioan erortzeagatik administrazio-zehapen edo zehapen penalik ez izatea (dagokion zehapenean ezarritako aldian).

— Garatu nahi den proiektua aurkeztea, zehaztasunez (helburua, egingo diren ekintzak...).

Hauek dira onuradunek bete beharreko baldintza espezifikoak:

— Egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra EAEn izatea.

## AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA

*Subvenciones para acciones humanitarias de emergencia. BDNS (identif.): 909544.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/909544).

*Primero. Objeto, condiciones y finalidad de la subvención.*

Esta ayuda se concederá para realizar acciones humanitarias de emergencia orientadas a personas y comunidades afectadas por situaciones de emergencia o desastre, causadas por catástrofes naturales, conflictos armados u otras circunstancias comparables.

*Segundo. Créditos y partida presupuestaria a los que se imputa la subvención.*

El importe total de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 6.000 € para el ejercicio presupuestario de 2026 y será financiado con cargo a la partida presupuestaria 481.01.230.20.0103 2026.

*Tercero. Procedimiento de concesión de la subvención.*

El procedimiento de concesión de la ayuda será:

Un procedimiento de concurrencia sucesiva, abierto de forma permanente, para proyectos de acción humanitaria, que se adjudicará siguiendo el orden de presentación de solicitudes. El agotamiento del crédito presupuestario constituirá motivo de desestimación de las solicitudes presentadas cuando estas se hayan presentado antes de la publicación oficial del mismo. Tras esta publicación, se inadmitirán las nuevas solicitudes.

Se procederá según lo establecido en la sección 1.ª del título II de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia.

*Cuarto. Requisitos que deben reunir las personas beneficiarias para la obtención de la subvención y forma de acreditarlos.*

Los requisitos generales a cumplir por las personas beneficiarias son los siguientes:

— Hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias con la Seguridad Social, Hacienda y el Ayuntamiento de Ordizia.

— No encontrarse en cualquiera de los supuestos señalados en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

— No estar incurso en sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación por violencia de género (durante el período impuesto en la correspondiente sanción).

— Presentar con detalle el proyecto que se quiere desarrollar (objetivo, acciones que se van a realizar...).

Los requisitos específicos a cumplir por las personas beneficiarias son los siguientes:

— Que tengan su sede central o delegación permanente en la CAPV.

EK\CV GAO-I-2026-03748

*Bosgarrena. Laguntzak emateko prozedura antolatzeko, bideratzeko eta ebazteko eskumena duten organoak.*

Ordiziako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailak bideratuko du prozedura.

Alkatetza da dirulaguntza-prozedura antolatzeko eta ebazteko organo eskuduna, egin ditzakeen eskuordetzei kalterik egin gabe.

*Seigarrena. Eskabideak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea zabalik egongo da deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik 2026ko urriaren 31ra arte.

*Zazpigarrena. Ebazteko eta jakinarazteko epea.*

Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, dagokion deialdia argitaratzen denetik aurrera.

Behin betiko ebazpenak, amaiera emango dio bide administratiboari.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, ebazpena aldatu ahal izango da.

*Zortzigarrena. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioak.*

— Eskabide-orri espezifikoa (Udalaren webgunean eskuragarri), balorazio-irizpideak betetzen direla adierazten duen azalpen-memoriarekin batera.

— Proiektuaren deskribapen zehatza.

*Bederatzigarrena. Errekurtsoak.*

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Alkateari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeko errekurtsoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

*Hamargarrena. Jakinarazteko edo argitaratzeko bidea.*

Eskatzaileak eskabidean adierazitako tokian eta moduan egingo dira jakinarazpenak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan ondorio horietarako ezarritakoa kontuan hartuta.

Ordizia, 2026ko maiatzaren 28a.—Adur Ezenarro Agirre, alkatea. (3748)

*Quinto. Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión.*

La instrucción del procedimiento se llevará a cabo por el departamento de Bienestar Social del Ayuntamiento de Ordizia.

El órgano competente para la ordenación y resolución del procedimiento de concesión es la Alcaldía, sin perjuicio de las delegaciones que pueda efectuar.

*Sexto. Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo de presentación de solicitudes permanecerá abierto desde la publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa hasta el 31 de octubre de 2026.

*Séptimo. Plazo de resolución y notificación.*

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución definitiva es de seis meses a partir de la publicación de la correspondiente convocatoria.

La resolución definitiva dará fin a la vía administrativa.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención podrá dar lugar a la modificación de la resolución.

*Octavo. Documentos e informaciones que deben acompañarse a la petición.*

— Impreso de solicitud específico (disponible en la página web del Ayuntamiento) acompañado de una memoria expositiva del cumplimiento de los criterios de valoración.

— Descripción detallada del proyecto.

*Noveno. Recursos.*

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante la Alcaldía, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

*Décimo. Medio de notificación o publicación.*

Las notificaciones se practicarán en el lugar y por el medio que el solicitante haga constar a tal efecto en la solicitud, teniendo en cuenta lo establecido a estos efectos en el artículo 41 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Ordizia, a 28 de mayo de 2026.—El alcalde, Adur Ezenarro Agirre. (3748)

EK\CV GAO-I-2026-03748